

# Komunikabideak, herria batzeko, euskararen bidez

**Eneko Bidegain, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria**

Hedabideen helburua ez da informatzea bakarrik. Izatekotan hori da ageriko xedea, amua. Hedabideek hizkuntza batean komunikatzen dute, hizkuntza bat hedatzen dute. Informazioa beren filtrotik pasatzen da; ematen dute eman nahi duten informazioa, eman nahi duten gisan. Hots, informazio eskaintza horren zinezko xedea, herri kontzientzia baten sorraraztea da. Edo, gutxienez, prentsa funtsezko tresna da, herritarren kontzientzia nazionalerako, Anne-Marie Thiessen (2014) solasei jarraikitzen bagatzaizkie.

Nazioa ordezkatzan duten egitura ezagunenak dira arduradun politikoak biltzen dituzten erakundeak, legebiltzarra bezala, hots, nazio baten burujabetzaren bermeak, Benedict Andersonek (2006) dioen bezala, Thiessek azpimarratzen duenez. Harago doa Thiesse (2014): nazioa egiten dute, baita ere, nazioaren formari, mugei, berezitasunari eta ondareari, hots, nazioaren batasunari, irudia eta hitzak ematen dizkiotenek, hala nola komunikabideek.

Egunkari baten kontsumoa “pribatua eta kolektiboa” da aldi berean. Horrexegatik, denen egunkari berak edo antzekoak irakurtzeak eragiten duena da irakurle horiek guztiak “komunitate nazional bereko parte” sentiaraztea, Thiessen (2014) iritiz. XIX. mendeko egunkariez ari da, baina garai guztietara zabal liteke baieztapen hori. Gainera, ez da bakarrik –edo bereziki– mintzo prentsa “nazionalaz”, baizik eta “eskualde prentsez”. Eskualde prentsa horren helburua ez da tokian tokiko berriak ematea, baizik eta “nazioaren” ikuspegia errotzea. Zehazki, tokian tokiko berriak amu bat dira, xede nagusia “nazioa” baita. Eskualde bakoitzaren gainetik, nazioaren batasuna azpimarratzeko tresna dira, denen arazoak antzekoak direla erakutsiz eta denen gainetik estatua dagoela argi utziz.

Hizkuntza tresna estrategikoa da bide horretan, estatuaren “hizkuntza nazionala” eraikitzeko modua delako. Hizkuntza desagertuak berpizteko,

hizkuntza nazional bihurtzeko eta hizkuntza horiei prestigioa emateko balio izan du prentsak. Hala izan zen Israelen, baina baita ere Europako hainbat lekutan, Thiessek (2014) dioen bezala. Frantzia berean, hizkuntza estandar bat sozializatzeko modua eskaini zuen prentsak.

Prentsak balio handia du hizkuntza zabaltzeko, eta literaturak ez dauzkan onura zehatz batzuk ere baditu, hala nola egunean eguneko gaiak lantzea eta izendatzea, erregistro zabala erabiltzea. Halaber, Thiessek (2014) onura gisa ikusten ditu testuen sorkuntzaren jarraikortasuna eta sorkuntza kolektiboa. Azkenik, hizkuntzaren arauak, ortografikoak batez ere, egunkarietako erredakzioek finkatzen dituzte.

### **Euskal prentsaren balio soziala**

Prensa daukan hizkuntza batek, halabeharrez, hizkuntza hori arautzea eta sozializatzea dakar. Euskal Herrian ere gertatu da hori, besteak beste Euskal Irrati Telebistari, *Argia* astekariari eta *Berria* egunkariari esker. Baina beste dozenaka komunikabide ere aipa litezke. Arreta berezia jar liteke, dena den, *Berria* egunkarian. Euskaltzaindiaren arabera, euskarazko egunkari horren balioetako bat da eragile saihestezina dela euskararen arautzean edo normatibizazioan (Bidegain, Agirre, Amonarriz eta Larrañaga, 2016). Euskaltzaindiak berak, erabakiak hartu behar dituenean, *Berria*-n argitaratzen denari so egiten dio, gaur egun euskara argitaratutako corpus-aren erdia *Berria*-k eskaintzen baitu. Hizkuntza etengabe eguneratzeko beharra du eguneroko prentsak, egunero sortzen baitira prentsan aipatu beharreko kontzeptu berriak, eta prentsa ezin baita akademiak erabakitzearen zain egon. Horregatik, gehienetan, akademiaren aitzinetik dabil prentsa.

*Euskaldunon Egunkaria*-k lehenik eta *Berria*-k gero, erreferentziazko lan bat egin zuten, euskara estandarren eraikuntza horretan, *Estilo Liburua* sortuz. Euskaraz idatzi nahi duen ororentzat da erabilgarri; azken urteetan, gainera, doan kontsulta daiteke sarean, eta eguneratzen dute. Nola da? Olite ala Erriberri? Nahikoa da *Berria*-ren estilo liburuan begiratzea, erantzuna jakiteko. Dinamarka ala Danimarka? Nola erabiltzen dira marra luzeak, marratxoak, kakotxak, puntu-kakotxak eta abar? Erantzun horiek ere *Estilo*

*Liburua*-n daude. Twitterren ere badabil *Estilo Liburua*: egunero ematen ditu aholkuak, eta irakurleen galderei ere erantzuten die. Euskara estandarraren garapenean eta haren sozializazioan, ezinbesteko tresna bihurtu da *Estilo Liburua*; eta horrekin batera, komunikabideak (oroz gainera, *Berria*, lider eta aitzindari den heinean) erreferentzia dira.

Euskara estandar horrek sortzen ditu kritikak zenbait irakurleen partetik. Alabaina, euskara estandarra denek ulertzeko gisakoa izanik, ez da nehorena. Irene Arrarats *Berria*-ko euskara arduradun eta *Estilo Liburua*-ren egileak ere argi du “euskara estandar nazional bat egiteak irakurleari ere eskatzen” diola ahalegina egitea: “eskuzabaltasuna, batetik, aldameneko herrikoaren hizkera ere ulertzeko; eta anbizioa, bestetik, bere hizkeran, eta berean bakarrik, bertan goxo ez gelditzeko” (Arrarats, 2015: 69).

Gaur egun nehork ez du kritikatzeko Frantziako edo Espainiako egunkarietako edo telebistetako frantsesa edo espainola, berea ez delakoan. Frantses edo espainol estandarra ere eraikuntza bat izan dira, gaur denek naturalizat badaukate ere. Funtsean, Frantzian eta Espainian ere badituzte beren tokian tokiko ñabardurak, azentuak, lexikoak... Horrek ez du kentzen guztiz onartuta dagoela hizkera formala, eta balio izan duela Frantziako edota Espainiako batasun linguistiko bat eraikitzeko.

Euskara estandarrak ere balio du Euskal Herriko batasun linguistiko bat eraikitzeko, euskalkien gainera, euskaldun guztiek elkar ulertzeko aukera izan dezagun. Bakoitza bere euskalkian ariko balitz, nekez ulertuko luke tolosar batek Atharratzeko arazo baten berri edo uztariztar batek Bermeoko gertakari bati buruzko albistea. Euskara estandarrik ez balitz, eta idazten duenak bere euskalkian edo arautu gabeko euskara batean idatz baleza, irakurleari anitz kostako litzaioke jarraitzea Siriako berriak, Ipar Korearen eta Amerikako Estatu Batuen arteko tentsioa edo Joko Olinpikoetako balentriak. Eta orduan, frantseseko edo espainolezko komunikabideetara jo beharko luke, nazioarteko berriak eskuratzeko. Beraz, euskara estandarrik gabe, frantsesaren edota espainolaren menpe geundeke, akademian eta administrazioan bezala, berrien jakiteko ere.

Joxe Manuel Odriozolak (2017) euskaltasun “etnokulturalaren” eta euskaltasun “nazionalaren” arteko konparaketa egiten duenean, horretaz ari da. Euskara batu eta estandarri bizkarra ematen dion euskalduna euskaldun etnokulturala da: euskarak balio dio etxean eta herriko lagunekin mintzatzeko, ez, ordea, eremu zabalagora jotzeko. Informaziorako, akademiarako edo bizitza formalerako beharrezkoa du frantsesa edo espainola, euskara baturik ezean. Euskaldun nazionalak, aldiz, ez du frantsesaren eta espainolaren premiarik munduko berri jakiteko, literaturaz gozatzeko edo unibertsitaterako. Horretan laguntzen du estilo liburu bat edukitzeak, Irene Arraratsek (2015) dioen bezala:

“Beraz, urte haietan aitzindari lana bete eta proposamen asko egin beharra egokitu zitzaion Egunkariari, kazetaritza ereduan ez ezik, baita lexiko orokorrean eta terminologian, *burujabetza* sintaktikoan –alegia, erdal topiko pedanteei amore ez emateko borrokan, euskarak bat bakarira irau zezan, eta ez bitan banaturik, eredu zinez nazionalik gabe–“ (Arrarats, 2015: 73).

Hots, euskarazko prentsa bat edukitzeak balio du euskal identitateari izaera nazionala emateko, euskarari balio nazionala emateko. Horretarako, euskarazko prentsa horrek euskara batu eta estandarra erabili behar du, erantzukizunez, Euskal Herri osorako balio izan dezan, Euskal Herriko irakurle edo ikus-entzule guztiek erreferentzia berak izan ditzaten, euskara nazional bera izan dezaten (nahiz eta tokian tokiko lexikoak eta esaerek leku osoa daukaten euskara estandarrean, koherentziaz erabiltzen diren heinean). Orogen buru, Anne-Marie Thiessek (2014) aipatutako Frantziako prentsak edo Israelgoak Frantzian edo Israelen bete zuten funtzio bera bete lezake Euskal Herriko prentsak, euskara baldin badu oinarrian.

### **Zorroztasunaren beharra**

Komunikabideak eredu izanik herritarrentzat eta euskararen corpus-aren iturri nagusi bihurturik, daukaten erantzukizuna ikaragarria da. Euskaltzaindiak berak corpus hori erabiltzen du, erabakiak hartzeko, hizkuntza arautzerakoan. Ospe hori lortua dute, fidagarriak dira edozeinentzat. Horregatik, zorroztasun handiarekin aritu behar dira eguneroko lanean, bai kazetariak, bai zuzentzaileak, arau horiek

errespetatzeko, Irene Arraratsek maiz aipatu duen bezala, “euskarazko euskaraz” idazteko, erran nahi baita, erdal kalkoak baztertzeko.

Euskarazko komunikabideek ezin dute erabili “Bidart”, “Bidarte” beharrean edo “Ustaritze”, “Uztaritze” behar duen lekuan. Ezin dute erran “Noruega”, baizik eta “Norvegia”. Ezin dute idatzi “Guardia zibilei jo zieten”, baizik eta “Guardia zibilak jo zituzten”. Halaber, gaizki dago “goardia zibil”... Akatsak ez dira egin behar, irakurleek eta entzuleek ontzat eman ditzaketelako, edo zalantzaren aurrean, Google-en bilatuz gero *Berria*-k edo beste komunikabide batek nola erabili duen, akatsa duten bertsioak ere agertzen direlako.

### **Herri bat marrazten**

Euskara estandarrak Euskal Herri osoan ulertua izateko balio badu, euskara estandarrean egiten den prentsak balio du Euskal Herri guztiko berri Euskal Herri osoan zabaltzeko. Komunikabidearen hautu editorialaren araberakoa da, gero, izaera nazionala izanen duen ala ez, edukien aldetik. Euskara estandarrak, denen eskura jartzen ditu edukiak. Gaur egun, gainera, tokiko prentsa ala nazionala izan, sareari esker, Euskal Herri osoan bezala mundu zabalean irakur edo ikus litezke komunikabideen edukiak.

*Euskaldunon Egunkaria*-k eta *Berria*-k, egunkari nazionala izateko helburua zuten hastapenetik. Eta hori ez da bakarrik islatzen euskara estandarren aldeko hautuarekin. Edukiak ere nazionalak izateko ahalegina egiten dute. Eduki nazionalak izateak erran nahi du Euskal Herri guztiko berriak emateaz aparte, nazioarteko gertakari nagusiak ere kontatzen dituztela. Komunikabide nazionalak oihartzuna ematen die Brebetako zientzietako azterketa euskaraz egin duten ikasleei, Errekaleorri, Nafarroa Garaiko funtzionarioen hizkuntza ezagutzaren auziari, Euskal Elkargoari, pastoralari, Irungo eta Hondarribiko alardeei, Gernikako merkatuari...

Euskaldun guztiak komunikabide nazional horiekin identifikatuak sentitzeko, komunikabide horiek funtsezkoak izan behar dute haien behar informatiboetarako. Hala bada, garbi geldituko zaie euskara estandar horren betebeharra eta, pixkanaka-pixkanaka, natural bihurtzen edo bihurtuko zaie. Haatik, edukien izaera nazionala urritzen bada, identifikazio hori ahultzen da.

Hain zuzen, azken urteetan galtzen ari da naziotasunaren zorroztasuna. Hori garbi ageri da euskarazko komunikabide nagusiek berriak Euskal Autonomia Erkidegora mugatzeko duten joerarekin. Egunero edo ia egunero agertzen dira datu estatistikoak, eta gehien-gehienetan Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoak izaten dira bakarrik. Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria bazterrean uztea dakar horrek, eta beraz, hango irakurle edo ikus-entzuleengandik urruntzea. Halaber, lantzen diren gaietan, Bizkaiak eta Gipuzkoak dute lehentasuna. Komunikabideen arabera, Arabak, Nafarroa Garaiak edo Ipar Euskal Herriak leku gehiago edo gutxiago dute, baina, oro har, baieztatu liteke Ipar Euskal Herria franko baztertuta dela.

Euskarari izaera nazionala eman nahi bazaio, euskaraz lantzen diren edukiek ere izaera nazionala behar dute, edo Euskal Herri osoko berriak eman behar dira. Interes nazionala duten eta Euskal Herriko bazter guztietako berriei lekua emanen dieten hedabideek lortuko dute publikoaren eta euskara estandar nazional horren arteko lotura egitea. Hots, euskara estandarra zabaltzea.

Bi norabidetakoa da hori. Gaur egun, sareari esker, nornahik idatz ditzake berriak bere blogean edo edozein lekuko aldizkarik zabal ditzake bere edukiak Euskal Herri eta mundu osora. Otxandioko batek irakur dezake Elizondoko berri bat, edo Aguraingo batek Hazparneko bat. Interneten garaian, tokian tokiko aldizkarien, irratien edo telebisten zabalkundea ez da gehiago herrian edo ibarrean gelditzen. Zabalkunde horretaz jabeturik, komeni da eduki horiek ere euskara estandarrean idaztea. Garbi geldi bedi: horrek ez du erran nahi uko egitea euskalkietako hitzei edo itzuli bereziei, betiere txokokeria handiegiak ez badira egiten eta gramatika arauak errespetatzen badira.

### **Ondorioa: euskara estandarreko komunikabideen beharra**

Euskarazko komunikabideei esker, euskara egunero zabaltzen da. Euskarazko komunikabiderik ez balitz, frantsesez edo espainolez behar izango genuke jakin gure inguru hurbileko, Euskal Herriko eta mundu zabaleko berri. Bistan da, Frantziaren edo Espainiaren filtrotik igarotako

berriak lirateke. Egia da oraino ere frantses eta espainol hedabideak direla euskaldunek gehienik kontsumitzen dituztenak, eta euskarazkoen eragina mugatua dela. Hala ere, aitortu behar da bide handia egin dela azken 30-40 urteetan.

Bide handia egin da, baina ez da bidean lokartu behar. Hedabideetan ari diren profesional eta boluntarioen erantzukizuna handia eta epe luzekoa da. Euskararen sozializatzeko eragile nagusietako bat izanik eta, bereziki, euskaraz idazten duen ororentzako erreferentzia eta eredu izanik, ardura handiaz jokatu behar dute, idazterakoan edo mikrofonoa hartzerakoan. Eraikita dagoen euskara estandar horren arauak errespetatu behar dituzte, egunero aberastearekin batera.

Euskara batuak mende erdia bete duen urtean, oraino entzuten da erresistentziarik, euskara estandarren kontra. Artifiziala izatea leporatzen diote batzuek; euskalkia arriskuan ikusten dute beste batzuek, lehentasuna euskalkiak lukeela aldarrikatuz. Euskara estandarrik gabe, bakoitzak bere euskalkian eginez publikoarentzako komunikazioa, euskarak balio izanen luke bakarrik eskualde batekoak elkarren artean komunikatzeko; ez luke balio izanen euskaldun guztiak elkarrekin aritzeko, Euskal Herri osoaren kohesionatzeko... Euskara estandarrik gabe, espainolaren eta frantsesaren beharra genuke. Eta beraz, epe luzera, euskalkiak berak ere ez lirateke biziko. Komunikabideak (literaturarekin, irakaskuntzarekin eta abarrekin batera) dira ezinbesteko tresnak euskara biziarazteko, euskarari ematen baitiote izaera nazionala eta, horrekin, indarra.

## **Bibliografia**

Anderson, B. R. O. (2006). *Imagined communities: reflections on the origin and spread of nationalism* ([1983] ed.). London ; New York: Verso.

Arrarats, I. (2015). Hutsetik 3.789ra. *Jakin*, 65–78.

Bidegain, E., Agirre, I., Amonarriz, J., & Larrañaga, A. (2016). Goiena eta BERRIA komunikabideen balio soziala: neurgailu berri baten lehen egokitzapenak, euskal prentsarako. *Uztaro*, 98, 79–96.

Odrizola, J. M. (2017). *Nora goaz euskalduntasun honekin?* Donostia: Elkar.

Thiesse, A.-M. (2014). La presse dans la formation des identités nationales. In M.-E. Therenty & A. Vaillant, *Presse, nations et mondialisation au XIXe siècle*. Nouveau Monde éditions.